



## Azalpena HLEA Zahartzaroa etxean

### I. ENTZUNDAKOAREN EDUKIA

Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin zuen 2015ean 55 urtetik gorako gizon eta emakumeen bizi-baldintzei buruz.

**Gero eta gehiago bizi gara?** Bai. Bizi-itxaropena gero eta altuagoa da, emakuzmekoak 86 urte betetzera iristen dira batez beste, eta gizonak 80ra, gero eta gehiago. Garai batean 100 urte betetzea zaila zen, baina gero eta arruntagoa da herrietan 100 urte betetzen dituztenei festa-ospakizunak egitea, hau da, gero eta jende gehiagok betetzen du 100 urte. 85 urtetik gorakoena ere oso esanguratsua da. 2018ko behin behineko datuen arabera, 65 urtetik gorakoak % 22 dira, eta 85 urtetik gorakoak ia % 4. Ehun urteko gero eta gehiago.

**Baina nola iristen gara?** Egokiena litzateke ahalik eta autonomoen iristea. Horretarako bide egin behar da. Bizitza luzatzeak mendekotasunik gabe eta autonomia maila altuarekin geratzeko eta urte gehiago bizitzea ekarri du, bizitza aktiboagoa izatea, bai funtzionala eta baita erabakitzeke ahalmenarekin ere. Baina, era berean, gero eta urte gehiago biziko gara beharrekin, hau da, mendekotasun egoeran edo beste norbaiten beharra izanik. **Bakarrik bizi den jende asko dago?** Gizartearen isla hori da; etxeko bizitza unitateen eraldaketa ere emanten ari da, etxe bakoitzean bakarrik bizi den gero eta jende gehiago dago, baina horrek ez du esan nahi etxeokoen harremanik ez izatea. Euskadin oso gurea da harremana, behintzat telefonoz, etxeokoen, senitartekoen... baina bakardadearen zama, izan erabakia ala erabaki gabea, gero eta nabarmenagoa da.

**Nor arduratzen da adinekoen zaintzaz?** Nahiz eta garai batean familia arduratzen zen, gauzak progresiboki aldatzen ari dira, baina modu azkarrean. Orain urte batzuk arte oso ohikoa zen alaba ala bikoteetan, emakumea, arduratzea. Emakumea lan munduan sartzeak eta bizitzeko beste modu batzuk hartzeak eragin du aldatzen joatea, profesionalizatzea. Baina, era berean, oraindik emakumearen presentzia zaintza-eremuan oso-oso nabarmena da.

**Bereziki etxean zahartzeaz hitz egin nahi dugu. Zuen tesia izaten da beti, ahal dela, etxean zahartu behar dela.** Ez da gure tesi bat. EAEko bizi-baldintzen inguruko ikerketa horretan adierazten den desira bat da. Ahal den bitartean pertsonok hori adierazten dugu: gure etxean, gure eremuan bizi nahi dugula, beharra izanda ere. Gipuzkoako Diputazioaren foroan, etorkizuna eraikiz, parte-hartze foro batzuk egiten ari dira herri ezberdinetan eta galdetzen da "pentsatu duzu inoiz zaintza beharko bazenu non eta nola nahiko zenukeen?" eta gehiengoak aipatzen du, ahal den bitartean, neure etxean.

**Eta hori nola egiten da? Hainbat erronka, arazo sortuko dira...** Ez da erraza. Hainbat faktorek zaildu egiten dute (bakardadea, behar ditugun baliabidetara ez iristea, zaintzailea bera etxean egoteko behar dagoen sostengua nola dagoen jakitea... Guztiok kontuan hartu beharko genuke, baina askotan, etxe egoera bat denez, sartzea kostatzen zaigu eta norberak etxean ondo egoteko nola egon beharko lukeen antzematea ere kosta egiten da askotan.

### II. ENTZUNDAKOTIK ABIATUTA

- Zure inguruan nola bizi dira zaharrak?
- Nola bizi nahi duzu zahartzaroa?



## Azalpena HLEA Zahartzaroa etxean

Zahartzaroa etxean nola bizi aztertuko dute Euskadi Irratian Maider Azurmendiren eskutik, Matia Fundazioko kooperazio-arduraduna.

Entzun ahala, hartu oharrak eta osatu eskema. Eskema erabiltzeak informazioa antolatzen eta azalpen argia egiten lagunduko dizu

### 1. SARRERA:

### 2. GARAPENA:

- Gero eta gehiago bizi gara
- Zaintza noren esku?
- Zahartzaroa etxean

### 3. AMAIERA: